



TXORIERRIKO MANKOMUNITATEA

TXORIERRIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

BERDINTASUN SAILA

2017ko JARDUEREN MEMORIA

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA.....	2
2. ZERBITZUAREN EGITEKOAK.....	3
2.1 KOORDINAZIO-LANA.....	3
➤ ERAKUNDE PUBLIKOAK	
➤ MANKOMUNITATEAREN ZERBITZUAK	
➤ UDALAK	
➤ HEZKUNTZA	
➤ ENPRESAK	
➤ ELKARTEAK	
➤ KOMUNIKABIDEAK	
2.2 BESTE EGITEKO BATZUK.....	5
➤ HEDAPENA	
➤ HERRITARRENTZAKO ARRETA	
➤ GIZARTE ZERBITZUEN BATZORDEA	
➤ DIRU-LAGUNTZAK	
3. PROGRAMAK.....	7
4. DIRU-LAGUNTZAK.....	21
5. UDAL BAKOITZEAN EGINDAKO LANAREN LABURPENA.....	22

1. ZERBITZUAREN AURKEZPENA

Berdintasun Zerbitzuaren betebeharr nagusia Udalei gai honi buruzko laguntza teknikoa ematea da. Zerbitzu honen helburua emakumezko eta gizonezkoen arteko harremanak aldatzea da. Horretarako, bai emakumezko eta gizonezkoen arteko desberdintasun eta diskriminazio egoerak zuzentzeko eta konpentsatzeko, bai genero-gizarteratzearen ondorioei aurre egiteko, bai berdintasunezko gizarte-eredu bat bermatzeko balio izango duten programak, planak eta proiektuak bultzatzen ditu.

Beste sailetan ez bezala, Berdintasun Sailak bi mailatan egiten du lan Mankomunitateak: haraneko udalerri edo herritar guztientzat antolatutako **jarduketa komunen bitartez** eta Udal bakoitzak bere herritarrentzat antolatutako **jarduketa espezifikoaren bitartez**. Bigarren kasu horretan, Mankomunitateko berdintasun-technikariak laguntza teknikoa eskaintzen die udalerri bakoitzeko Berdintasun Unitateei.

2. BERDINTASUN-ZERBITZUAREN EGITEKOAK

Zerbitzu hau existitzearen helburua da Txorierriko emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorra lortzea, generoa zeharka landuz. Kontzeptu horrek erreferentzia egiten dio politika publikoetan emakumeen eta gizonen Tratu Berdinaren eta Aukera Berdinen printzipioa aplikatzeari; horrek esan nahi du bermatu egingo dela baliabide guztiak eskuratzeko aukera-berdintasuna dagoela, politika publikoak diseinatzekoan egun existitzen diren desberdintasunak aintzat hartzen direla eta politika horiek aurrez aipaturiko berdintasun erreal eta eraginkor hori lortzeko izan dituzten emaitzak eta eragina identifikatzen eta ebaluatzen dela.

2.1. KOORDINAZIOA

ERAKUNDE PUBLIKOAK

- Bizkaiko Foru Aldundia

Etengabe dihardugu elkarlanean Aldundiarekin; izan ere, erakunde horrek diruz laguntzen ditu berdintasunaren arloan Udalek egiten dituzten hainbat ekintza. Derio salbuespena da; izan ere, 5.000 biztanletik gora dituenek, ez du Aldundiaren diru-laguntza hori jasotzen.

Bestalde, BERDINBIDEAN BIZKAIA proiektua dugu. Proiektu horrek berdintasunaren alde lan egiten du Lezaman eta Zamudion; hori dela eta, beharrezkoa da erakunde horrekin harreman estuagoa izatea.

- EMAKUNDE

Emakumearen Erakundea oinarritzkoa da EAEn berdintasuna lortu ahal izateko, eta lankidetzaz funtsezkoa da sailak behar bezala funtziona dezan.

➤ EUDEL

Udalerri guztiak BERDINSAREA izenekoaren kideak dira. BERDINSAREA euskal udalerrien sare bat da eta berdintasunaren alde lan egiten du.

Hori dela eta, ezinbestekoa da EUDELekin eta sareko kide diren gainerako udalerriekin lankidetzan aritzea.

MANKOMUNITATEAREN BESTE ZERBITZU BATZUK

Berdintasuna Mankomunitateko sail guztietan zeharka landu ahal izateko, egunez egun elkarlanean aritzen gara Gazteria, Esku-hartze Komunitario eta Euskara sailletako teknikariek.

UDALAK

Zerbitzu honek behar bezala funtziona dezan, ezinbestekoa da lankidetzan aritzea udal guztietako Kultura Sailekin; hori dela eta, hilean behin sail horretako ordezkari guztiok bildu egiten gara Gazteria, Euskara, Esku-hartze Komunitario eta Berdintasun sailletako ordezkariekin.

Ekintzak abiatzeko, ezinbestekoa da, halaber gazteguneeetako, gaztelekueetako eta ludoteketako begiraleekin harremanetan egotea.

HEZKUNTZA

Martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko kanpainenetan, ohikoa da eskola publikoetara ekintzak eramatea; horretarako, ezinbestekoa da ikastetxe horietako zuzendaritzekin elkarlanean jardutea.

Kanpaina horietan, HHlan ere abiatzen dira ekimenak; horretarako, funtsezkoa da ikastetxeko zuzendaritza-taldearekin batera lan egitea.

Politeknika Ikastegia Txorierrirekin ere harreman estua dugu; izan ere, urtero antolatzen da bizikidetzarekin eta berdintasunarekin erlazionaturiko jarduera bat.

ENPRESAK

Enpresa hauekin egiten dugu lan batez ere: WOM COMUNICACIÓN, ORTZADAR, ESHE, MURGIBE, SORTZEN, LANTEGI BATUAK.

ELKARTEAK

Mankomunitatea osatzen duten hainbat udalerrik emakume-elkarteak dituzte; Berdintasun Saila haiekin harreman etengabea eta lankidetzaz jarraitua izaten saiatzen da.

KOMUNIKABIDEAK

Funtsean, Berdintasun Saila bi komunikabiderekin aritzen da elkarlanean: AIKOR eta DEIA.

2.2. BESTE FUNTZIO BATZUK

HEDAPENA

Udalerrietako kultur agendak eta webguneak erabiltzen dira batez ere Berdintasun Sailak antolatzen dituen jarduerak ezagutzera emateko.

Horrez gain, kartelak jarri, diptikoak postontzietan sartu eta sare sozialak ere erabiltzen dira.

HERRITARRENTZAKO ARRETA

Ohikoa izaten da emakumeak Berdintasun Sailera etortzea genero-indarkeriari buruzko aholkularitza bila. Orain arte, eskura dituzten baliabideen berri eman diegu eta kasu zehatzagoetan, esaterako, indarkeria jasaten ari den alaba adingabe bat dutenen kasuan, zer egin azaldu diegu.

GIZARTE ZERBITZUEN BATZORDEA

Hiru hilabetean behin, Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuen Batzordean aurkezten dira Berdintasun Sailean antolatzen diren programak eta ekintzak.

1. PROGRAMAK

JARDUERAREN IZENA

1.-INDARKERIA ETA SEXISMOA PREBENITZEA HARREMAN AFEKTIBO ETA SEXUALETAN

1.- Jardueraren eremua

Jarduera hau Txorierri Politeknikako ikasleei zuzentzen zaie.

2.- Jardueraren helburuak

Jarduera honen bidez helburu nagusi hauek lortu nahi izan dira:

- Txorierri Politeknikako nerabeen artean eztabaida piztea, berdinen arteko indarkerian eta genero-indarkerian parte hartzen duten mekanismoei buruz.
- Pertsona arteko harremanak sendotzeko beharrezkoak diren ezinbesteko balioak indartzen laguntzea: berdintasuna, autonomia, hautatzeko askatasuna, indarkeriarik gabe gatazkak ebaztea...
- Hezkuntzaren aldeko jarrera onak sustatzea, balio hauetan oinarrituta: berdintasuna, indarkeriaren prebentzioa, kulturarteko hezkuntza eta abar.

3.- Jardueraren deskribapena

Talde bakoitzarekin 90 minutuko saio bat egin da, eta bertan eduki hauek landu dira:

1. Txorierri Politeknikako ikasleen artean eztabaida bat sustatu da, tratu txarretan eta errespetu faltan parte hartzen duten mekanismoei buruz.
2. Gazteen arteko elkarbizitzarako alderdi gako gisa sustatzea ikasleen arteko indarkeria-harremanak eraldatzea elkarriketaren eta heterogeneotasuna

onartzearen bidez, eta hori lortzeko sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak egitea.

4.- Ebaluazioa

Eztabaida oso interesgarri eta aberasgarriak sortu dira, eta harremanak hobetzeko proposamenak jaso dira. Horrez gain, ikasleak sentsibilizatu dira indarkeria matxistaren arrazoi eta ondorioei buruz, eta jarduketa positiboak sustatu dira. Horrenbestez, ondorioztatu daiteke programaren helburuak bete direla.

5.- Aurrekontua

Jardueraren zenbateko osoa 612 €-koa izan da, eta ESHEk dinamizatu du.

6.- Hartzaileak

- Mekanizazioko 1. mailako taldea (25 ikasle, 2 neska)
- Batxilergoko 1. mailako talde bat (25 ikasle, 3 neska)
- Batxilergoko 1. mailako talde bat (25 ikasle, guztiak mutilak)

7.- Hobetzeko proposamenak

Parte hartu duten agente guztiek programaren balorazio positiboa egin dute. Hala ere, agian sakonago lan egin behar genuke prestakuntza-zentroko ikasleekin.

JARDUERAREN IZENA

2.- MARTXOAREN 8ko KANPAINA



1.- Jardueraren eremua

Martxoaren 8ko kartelak udalerrri guztietan banatuko dira, herritarren arabera.

2.- Jardueraren helburuak

Jardueraren helburua da herritarrei martxoaren 8ko kanpainaren berri ematea.

3.- Jardueraren deskribapena

Kartela diseinatu eta 250 kopia banatu dira. Ondoren, kopia horiek Mankomunitatea osatzen duten 6 udalerrien artean banatu dira.

4.- Ebaluazioa

Zaila da mota honetako jarduera bat ebaluatzea. Izan ere, martxoaren 8ko kanpainarako kartel bat diseinatu eta programarekin batera 6 udalerrietan zehar banatzean datza.

5.- Aurrekontua

Kartela diseinatu eta 250 kartel eta 5.000 diptiko inprimatu eta banatzearen kostu osoa 1.750,87 eurokoa izan da. Arduraduna WOM Comunicación agentzia izan da.

6.- Hartzaileak

Txorierriko biztanleak.

7.- Hobetzeko proposamenak

Hurrengo kanpainetarako ez da diptikorik inprimatuko.

JARDUERAREN IZENA

3.- INSTITUTUAN INDARKERIA SEXISTA PREBENITZEKO TAILERRA

1.- Jardueraren eremua

Institutuko DBHko 1., 2. eta 3. mailako ikasle eta irakasleak sentsibilizatzeko jarduera da.

2.- Jardueraren helburuak

Jarduera honen bidez helburu nagusi hauek lortu nahi izan dira:

- Sozializazio-prozesuak eta horiek gure nortasuna eraikitzean duten eragina identifikatzea.
- Harreman afektiboak buruz eta gure nortasuna eraikitzeari dagokionez existitzen diren mito, estereotipo eta sinismen faltsuez jabetzea.
- Berdintasunean oinarritutako errespetuzko harremanak identifikatu eta sustatzea.
- Sakonago aztertzea zer den indarkeria sexista, zergatik gertatzen den, zer egin behar den eta non lortu daitekeen laguntza.

3.- Jardueraren deskribapena

DBHko 1., 2. eta 3. mailako talde bakoitzarekin 2 orduko 3 saio egin dira; hau da, tailerrak guztira 6 ordu iraun du talde bakoitzarekin. Horrez gain, bi orduko saio bat antolatu da irakasleekin.

4.- Ebaluazioa

Parte-hartzaile guztiek balorazio oso positiboa egin dute.

5.- Aurrekontua

Jardueraren zenbateko osoa 7.144 eurokoa izan da, eta ORTZADAR izan da kontratatutako enpresa.

6.- Hartzaileak

Jarduera hau Institutuko DBHko 1., 2. eta 3. mailako ikasle eta irakasleei zuzentzen zaie.

7.- Hobetzeko proposamenak

Etorkizunera begira, tailerrekin jarraitzea aurreikusten da.

JARDUERAREN IZENA

4.- AZAROAREN 25eko KANPAINA



1.- Jardueraren eremua

Azaroaren 25eko kartelak udalerrira guztietan banatuko dira, herritarren arabera.

2.- Jardueraren helburuak

Jardueraren helburua da herritarrei azaroaren 25eko kanpainarako udalerrira bakoitzak bere kabuz antolatzen dituen jardueren berri ematea.

3.- Jardueraren deskribapena

Kartel orokor bat diseinatu da, baina udalerrira bakoitzak berea du, bertan egingo diren jarduerekin.

4.- Ebaluazioa

Zaila da mota honetako jarduera bat ebaluatzea. Izan ere, azaroaren 25eko kanpainarako kartel bat diseinatzean datza.

5.- Aurrekontua

Kartela diseinatu eta udalerrri bakoitzeko programaziora egokitzeko kostu osoa 508,20 eurokoa izan da, eta proiektua WOM Comunicación agentziak egin du.

6.- Hartzaileak

Txorierriko biztanleak.

7.- Hobetzeko proposamenak

Martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko kanpainei dagokienez, bidezkotzat jo da diptikoen kantitatea murriztea. Izan ere, ikusi dugu 5.000 gehiegi direla.

JARDUERAREN IZENA

5-.DERIO, LEZAMA ETA ZAMUDIOKO IKASTETXEETAKO IRAKASLEENTZAKO PRESTAKUNTZA

1.- Jardueraren eremua

Baterako hezkuntzari buruzko 6 orduko prestakuntza-saioa antolatu da Derio, Lezama eta Zamudioko ikastetxeetako irakasleentzat.

2.- Jardueraren helburuak

- Harreman afektiboetan eta norberaren nortasuna eraikitzean existitzen diren mito, estereotipo eta sinesmen faltsuez jabetzea.
- Ikastetxean eta ikasgelan estereotipoek eta desberdinkeriak "irrist egiten" diguten egoerak identifikatzea.
- Egoera horiei aurre egiteko baterako hezkuntzako jarduketa-eredu ezberdinak identifikatzea.

3.- Jardueraren deskribapena

Jarduera ikastetxeetako klaustro osoarekin egin da, talde batean Zamudion eta Lezaman, eta bi taldetan Derion (pertsonek kopuruagatik).

4.- Ebaluazioa

Mankomunitateak oso positiboki baloratu du hiru ikastetxeetako klaustro osoak sentsibilizazio-saioetan parte hartu izana.

Ikastetxeek askotariko balorazioak egin dituzte. Hala ere, balorazio negatiboak jarduerak antolatu ziren egun eta ordutegiarekin daude lotuta; ikastetxeek jarduerak noiz egin erabaki bazuten ere.

Era berean, "errezeta magikoak" jaso nahi zituzten ikasgelan baterako hezkuntza lantzeko, eta ez horretarako tresnak. Jakina denez, hori ezinezkoa da.

5.- Aurrekontua

Jarduera hau garatzeko ORTZADAR enpresa kontratatu da. Hau izan da jardueraren kostua, udalerrietan xehatuta:

- Lezama: 510 €
- Zamudio: 510 €
- Derio: 1.020 €
- GUZTIRA: 2.040 €

6.- Hartzaileak

Udalerri horietako ikastetxeetako irakasleak.

7.- Hobetzeko proposamenak

Saio espezifikoagoak eta ikasgela bakoitzera egokituagoak egiteko aukera baloratuko da. Horretarako, alde aurretik lan handia egin beharko da.

JARDUERAREN IZENA

6-.BERDINEN ARTEKO HARREMANAK GENERO-IKUSPEGIAREKIN

1.- Jardueraren eremua

Tailerrak 6 ordu irauten du eta Politeknikako Mekanizazioko 1. eta 2. mailako ikasleei zuzentzen zaie. Tailerrean harreman pertsonalak eta lan-harremanak lantzen dira, genero-ikuspegiarekin.

2.- Jardueraren helburuak

- Prestakuntza- eta lan-inguruetan genero-estereotipoak agerian jartzea.
- Jarrera eta egoera matxistak identifikatzea.
- Estrategiak planteatzea eta maskulinitasun-eredu ezberdinak eskaintzea.

3.- Jardueraren deskribapena

Hiru orduko esku-hartzea izan da; zenbait eztabaida planteatu dira generoaren eraikuntzari buruz, eta zenbait hausnarketa egin dira lanbideen sexualizazioari buruz, emakumeen eta gizonen ezaugarri "femenino" eta "maskulino"-ei buruz eta genero-estereotipo eta genero-rolari buruz, besteak beste.

4.- Ebaluazioa

Tailer hau zenbait urtetan egin da, eta, beraz, finkatuta dago jada. Inplikaturako agente guztiek oso balorazio ona egiten dute.

5.- Aurrekontua

120 €; ORTZADAR taldeak dinamizatzen du.

6.- Hartzaileak

Mekanizazioko 1. eta 2. mailako ikasleak.

7.- Hobetzeko proposamenak

Tailerra zabaltzeko aukera baloratu behar genuke.

JARDUERAREN IZENA

7.- BERDINTASUNERAKO PLANAK

1.- Jardueraren esparrua

2017an udalerrietako eta Mankomunitateko berdintasunerako planak egin dira.

2.- Jardueraren helburuak

Helburu nagusia izan da udal bakoitzak eta Mankomunitateak beren berdintasunerako plana izatea.

3.- Jardueraren deskribapena

Planak egiteko diru-laguntza eskatu zitzaion EMAKUNDEri eta, laguntza hori jasoko zela jakinda, honako lan-prozesu honi jarraitu zitzaion:

1. Talde eragileak sortzea.
2. Hainbat arlotako teknikariek biltzea, haien ekarpenak jasotzeko.
3. Herritarrekin biltzea, haien ekarpenak jasotzeko.
4. Jasotako ekarpenak kontrastatzea talde eragileekin.
5. Planen zirriborroak idaztea.
6. Zirriborroak kontrastatzea talde eragileekin.
7. Planak idaztea.
8. EMAKUNDEri bidaltzea, hark baliozkotzeko.
9. Behin betiko planak osoko bilkuran onartzea.

4.- Ebaluazioa

Prozesu luzea izan da eta ahalegin handia egin behar izan da, baina aliantza berriak ezartzen eta indarrak berritzen lagundu du, berdintasunaren alde gogotsuago lan egiten jarraitzeko.

5.- Aurrekontua

Zazpi planak egiteko kostua guztira 21.000 eurokoa izan da. EMAKUNDEK zenbateko horren % 75 diruz lagundu du.

6.- Hartzaileak

Txorierriko udalerriak eta Mankomunitatea.

7.- Hobetzeko proposamenak

Etorkizunean lehenago hasi beharko da lanean; izan ere, lan-erritmoa gehiegizkoa izan da, eta, ondorioz, batzuetan ezin izan zaio behar adina denbora eskaini udalerrri bakoitzeko prozesu indibidualari.

4. DIRU-LAGUNTZAK

2016an, Eusko Jaurlaritzak, bake eta bizikidetzako programetarako diru-laguntzaren bidez, 8.063,39 € eman dizkio guztira Mankomunitateari. Eskaera horretan Berdintasun Saileko programa hauek sartu ziren:

- INDARKERIA SEXISTAREN PREBENTZIOA
- INDARKERIA ETA SEXISMOA PREBENITZEA HARREMAN AFECTIBO ETA SEXUALETAN
- BERDINEN ARTEKO HARREMANAK GENERO-IKUSPEGIAREKIN

5. UDAL BAKOITZEAN EGINDAKO JARDUEREN LABURPENA

Mankomunitateak biztanle guztiei zuzendutako jarduerak antolatzen ditu, eta udalek gauza bera egiten dute udalerrri bakoitzean. Hauek dira udalerriek eginiko jarduerak:

LOIU

2017an jarduera hauek egin dira:

- MARTXOAREN 8ko EMAKUMEEN BAZKARIA
- PELBIS-ZORUARI BURUZKO DIPTIKO INFORMATIBOA
- EMAKUMEENTZAKO MINDFULNESS TAILERRA
- IPUIN-KONTALARIA (AZAROAREN 25ean)
- TRIVIAL FEMINISTAKO PARTIDAK GAZTEEKIN (AZAROAREN 25ean)
- BERDINTASUN-PLANA

SONDIKA

2017an jarduera hauek egin dira:

- YOUTUBERREI BURUZKO TAILERRA GAZTEENTZAT (MARTXOAREN 8an)
- SARE SOZIALETAN INDARKERIA SEXISTA PREBENITZEARI BURUZKO HITZALDIA, GURASOEI ZUZENDUTA
- LEHENBIZIKO HILEKOARI BURUZKO TAILERRA ADINGABE ETA GURASOENTZAT
- BERDINTASUN-PLANA

ZAMUDIO

2017an jarduera hauek egin dira:

- LUDOTEKAKO JARDUERA (MARTXOAREN 8an)
- GAZTEEI ZUZENDUTAKO TAILERRA (MARTXOAREN 8an)
- ANTZERKIA (MARTXOAREN 8an)
- PUNTU LILAKO TXAPAK
- LUDOTEKAKO JARDUERA (AZAROAREN 25ean)
- GAZTEEI ZUZENDUTAKO TAILERRA (AZAROAREN 25ean)
- ADINEKO EMAKUMEENTZAKO HITZALDIA ZAHARTZE POSITIBOARI BURUZ
- JAIETARAKO PEGATINAK ETA PANKARTAK
- BERDINTASUN-PLANA

DERIO

2017an jarduera hauek egin dira:

- MARTXOAREN 8ko MARTXA
- MARTXOAREN 8ko ERAKUSKETA
- EMAKUMEENTZAKO AUTODEFENTSA
- GAZTEEI ZUZENDUTAKO JARDUERA (MARTXOAREN 8an)
- BEITUKO KAZETARIENTZAKO PRESTAKUNTZA
- INDARKERIA SINBOLIKOARI BURUZKO HITZALDIA (AZAROAREN 25ean)
- BERDINTASUN-PLANA

LEZAMA

2017an jarduera hauek egin dira:

- LUDOTEKAKO JARDUERA (MARTXOAREN 8an)
- GAZTEGUNEKO JARDUERA (MARTXOAREN 8an)
- ANTZERKIA (MARTXOAREN 8an)

- AUTODEFENTSA FEMINISTAKO 2 TAILER
- ZAHARTZE POSITIBOARI BURUZKO HITZALDIA EMAKUMEENTZAT
- JAIETARAKO PEGATINAK ETA PANKARTAK
- BERDINTASUN-BATZORDEA
- BERDINTASUN-PLANA

LARRABETZU

2017an jarduera hauek egin dira:

- BATERAKO HEZKUNTZAKO PROGRAMA IKASTETXEAN
- MIKROMATXISMOEI ETA INDARKERIA SINBOLIKOARI BURUZKO HITZALDIA
- BERDINSAREAREKIN BAT EGITEA
- ZUTUNIK ELKARTEAREN JARDUERAK